EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA — DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

# HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO ETA LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIEN JARRAIBIDEAK, IKASTURTEA ANTOLATZEKO, FISIOTERAPIAN ESPEZIALISTAK DIREN LANGILEENTZAKO

# INSTRUCCIONES DE LAS DIRECTORAS DE INNOVACIÓN EDUCATIVA Y DE GESTIÓN DE PERSONAL PARA ORGANIZACIÓN DEL CURSO ESCOLAR EN RELACIÓN CON EL PERSONAL ESPECIALISTA EN FISIOTERAPIA

## 2020/2021 IKASTURTEA - CURSO ESCOLAR 2020/2021

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren menpeko lan-legepeko irakaskuntza- eta hezkuntza-pertsonalarentzako hitzarmen kolektiboaren arabera arautzen dira fisioterapiako pertsonal espezialistaren funtzio eta lan-baldintzak (EHAA, 2004ko ekainaren 17an). Gainera, batzorde paritario bat ere badago, hitzarmen hori interpretatu, aztertu eta zaintzeko.

Pertsonal hori, funtzionalki, tokian tokiko Berritzegunearen (HPB aholkularitza) eta, administrazioari begira, Lurraldeko Hezkuntza Ordezkaritzaren menpe dago.

Argibide hauek 2020/2021eko ikasturterako funtzionamenduaren alderdi batzuk konkretatzea dute helburu. Hitzarmenaren arabera, egutegia eta ordutegia 2020eko urriaren 1a baino lehenago emango zaizkiola langileari azpimarratu behar da

Haien lana ahalik eta eraginkorrena izan dadin, zuzendaritza hauek profesional honek baldintza horiek izatea eskatzen dute:

- Ikastetxean espazioaren, higienearen, argiaren, tenperaturaren, pribatutasunaren etab.en aldetik behar diren baldintzak beteko dituen tokia izatea.
- Ikastetxean egin beharreko jardueretarako material suntsigarria eta normalean erabiltzen diren tresna batzuk (ordenagailua, telefonoa...) erabili ahal izatea.

Las funciones y condiciones de trabajo del personal especialista en fisioterapia se regulan por el convenio colectivo para el personal laboral docente y educativo, dependiente del Departamento de Educación del Gobierno Vasco Vasco (BOPV del 17 de junio de 2004). Además, existe una Comisión Paritaria para su interpretación, estudio y vigilancia.

Este personal depende funcionalmente del Berritzegune correspondiente (asesoría de NEE) y administrativamente de la Delegación Territorial de Educación.

Estas instrucciones tienen por objeto concretar aspectos de funcionamiento para el curso escolar 2020/2021. Es necesario resaltar que, por convenio, antes del 1 de octubre del 2020 se facilitarán al trabajador o trabajadora el calendario y el horario.

Con el objeto de que su labor sea lo más eficaz posible, desde estas direcciones se pide que este profesional:

- Disponga, en su centro, de un local que cumpla con los requisitos adecuados de espacio, higiene, iluminación, temperatura, privacidad, etc.
- Pueda hacer uso de material fungible y otros útiles corrientes (ordenador, teléfono...) para la realización de sus actividades en el centro.

Bestalde. ikastetxeak bere gain hartuko du 150 €tik beherako material espezifikoaren edo mantentze-materialaren kostua. Halaber, Berritzegunean inbentariatutako maileguzko materialaren mantentzeaz arduratu beharko du eta, erabili behar ez denean, egoera egokian itzuli beharko du.

Además, el centro escolar deberá asumir el coste del material específico y/o de mantenimiento que no supere 150 €. Así mismo, deberá hacerse cargo del mantenimiento del material en préstamo, inventariado en el Berritzegune correspondiente, devolviéndole en correcto estado cuando su uso ya no sea necesario.

Fisioterapiako pertsonal espezialistak parte hartuko du mugitzeko elbarritasun larriei lotutako hezkuntza-premia berezietako (aurrerantzean HPB) ikasleei eman beharreko hezkuntza-arretan, inguru hezitzailean oinarritzat hartuta (ikasgela, patioak, komunak, korridoreak...), ikasle horiek ohiko curriculumera edo curriculum espezifikora sarbidea errazte aldera.

El personal especialista en fisioterapia participará en la respuesta educativa al alumnado con necesidades educativas especiales (en adelante NEE) asociadas a discapacidades motrices graves, para facilitar su acceso a un currículo ordinario o específico, en un modelo centrado en el entorno educativo (aula, patios, baños, pasillos...).

Ohiko curriculumaren sartzeko esku-hartzea behar bezala justifikatutako curriculum-egokitzapen bat duten curriculum eremu/arlo horietan egingo da eta gehienez asteko bi saiotan egingo da, 30-45 minututan.

La intervención para el acceso al currículo ordinario se realizará en aquellos ámbitos/áreas curriculares que dispongan de una adaptación curricular debidamente justificada y se desarrollará como máximo en dos sesiones semanales de 30 o 45 minutos.

Curriculum espezifikoaren garapenean, ikaslearekin egin beharreko lan-planaren arabera zehaztuko dira saioak, ikasle horren hezkuntzari eman beharreko erantzunean parte hartzen duten gainerako profesionalekin koordinazioan. Kasu honetan saioen kopurua areagotu ahal izango da, lan-planaren eta dauden baliabideen arabera

En el desarrollo del currículo específico, las sesiones estarán determinadas por el plan de trabajo del alumnado, en coordinación con el resto de profesionales que intervengan en su respuesta educativa. En este caso se podrá aumentar el número de sesiones en función de dicho plan y de los recursos disponibles.

## EGUTEGIA ETA ORDUTEGIA

## CALENDARIO Y HORARIO

Fisioterapiako pertsonal espezialistaren egutegia erreferentziako zentro publikoarena izango da eta asteko lanaldiaren ehuneko handiena ematen den ikastetxe hori joko da erreferentziatzat.

El calendario del personal especialista en fisioterapia será el del centro público de referencia, considerando centro de referencia aquél con mayor porcentaje de dedicación de la jornada semanal.

Langile hauek ikasleekin egin behar duten esku-hartzea ikasturtearekin batera hasi eta bukatuko da, hezitzaileen taldeko gainerako langileek hasi eta bukatzen duten egun beretan.

La intervención con el alumnado se iniciará con el curso escolar y finalizará en las mismas fechas que lo hace el resto del colectivo de personal educativo.

Irailaren lehen hamabostaldia eginkizun hauek egingo dituzte: beste profesional batzuekiko eta familiekiko koordinazioa, urteko plana egitea, ikasleen mugitzeko garapenaren balorazioa eta ikasleekin lan egiteko planak gauzatzea.

La primera quincena del mes de septiembre se dedicará a: la coordinación con otros y otras profesionales y familias, la elaboración del plan anual, la valoración del desarrollo motor del alumnado y la elaboración de los planes de trabajo con el alumnado.

Ekainaren bigarren hamabostaldian HPB aholkularitzei entregatuko zaizkien banakako txostenak egingo dituzte. Urteko memoria ere egingo dute.

Durante la segunda quincena del mes de junio realizarán los informes individuales, que entregarán a las asesorías de NEE. También realizarán la memoria anual.

Fisioterapiako pertsonal espezialistak ikasleei eman beharreko arretari hasiera ematen dion ikastetxean hasiko du lanaldia, ikastetxe hori haren erreferentziako ikastetxea izan ez arren.

El personal especialista en fisioterapia comenzará su jornada en el centro escolar en el que inicie la atención directa al alumnado, aunque este no sea su centro de referencia.

Lanaldia goiz eta arratsaldekoa, astelehenetik ostegunera artekoa, izango da eta HPB ikasleen ordutegira, egokitu gabeko arloetan haien esku-hartzea ez eragozteko, eta ikastetxeen ordutegira egokituko da. Ostiraletan 09:00etatik 15:00etara egingo da lan eta azken bi saioak Berritzeguneetako HPB aholkularitzekin eta gainontzeko fisioterapeutekin koordinatzeko erabili ahal izango dira, lurralde mailako koordinazio-planaren arabera.

La jornada laboral será de mañana y tarde, de lunes a jueves, ajustándola al horario del alumnado con NEE, para que no interfiera su participación en las áreas no adaptadas, y al horario de los centros escolares. Los viernes se trabajará de 9:00 h a 15:00 h, pudiéndose dedicar las dos últimas sesiones a las coordinaciones con las asesorías de NEE de los Berritzegunes, y con el resto de fisioterapeutas, según el plan territorial de coordinación.

Fisioterapiako pertsonal espezialistak HPB aholkularitzei dokumentazio hori urriaren 9a baino lehenago aurkeztuko die:

- Erreferentziako ikastetxearen egutegia.
- Asteko orduen banaketa (I. eranskina).
- Zenbaketa osoa, orduetan (II. eranskina).
- Esleitutako ikastetxeen ordutegiak (III. eranskina).
- Ikasleen zerrenda (IV. eranskina).

El personal especialista en fisioterapia presentará, antes del 9 de octubre, a las asesorías de NEE correspondientes, la siguiente documentación:

- Calendario del centro de referencia.
- Distribución horaria semanal (anexo I).
- Cómputo total en horas (anexo II).
- Horarios de los centros asignados (anexo III).
- Listado de alumnado (anexo IV).

Berritzeguneko zuzendaritzak, oniritzia eman ondoren, Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzan tramitatuko du dokumentazio hori eta ordezkaritzak 15 eguneko epe bat izango du,

La dirección del Berritzegune tramitará dicha documentación, con su V°B°, a la Delegación Territorial de Educación, que dispondrá de un plazo de 15 días para

aldaketak sartzeko. Aldaketarik egin ezean, onartutzat joko da.

introducir modificaciones. En caso contrario, se dará por aprobada.

Hezkuntza Berriztatzeko lurralde arduradunak I eta II eranskinak Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaritzari bidaliko dizkio.

El o la responsable territorial de Innovación Educativa remitirá los anexos I y II a la Dirección de Innovación Educativa.

## PRESTAKUNTZA

Kolektibo horri hezkuntza-sistemaren barruan esleitutako funtzio eta eginkizunei lotuta egongo da prestakuntza, lurralde artekoa izango da eta ekainaren azken astean edo irailaren lehenean gauzatuko da

Prestakuntza hori aurrera eramateko, lurralde koordinatzaileen proposamenak hartuko dira kontuan.

Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak prestakuntzaren ildoa erabakiko du, Hezkuntza Sailaren premia eta lehentasunen arabera.

Berritzegune nagusiak prestakuntza hau antolatu eta kudeatuko ditu.

## FORMACIÓN

La formación estará relacionada con las funciones y tareas asignadas a este colectivo dentro del sistema educativo, tendrá un carácter interterritorial y se desarrollará en la última semana del mes de junio o en la primera de septiembre

Para el desarrollo de esta formación se tendrán en cuenta las propuestas de los coordinadores o las coordinadoras territoriales.

La directora de Innovación Educativa decidirá el sentido de la formación, en función de las necesidades y prioridades del Departamento de Educación.

El Berritzegune central organizará y gestionará esta formación.

## KOORDINAZIOA

Beste profesionalekin koordinazioa (HPBko aholkulariekin, irakasleekin, okupazio-terapeutekin, hezkuntza laguntzako espezialistekin, sendagile birgaitzaileekin, ortopedekin,...), jarduera-planean zehaztakoaren arabera egingo da.

Ikasleei buruzko hasierako txostena, lan egiteko plana eta amaierako balorazio txostena HPB aholkularitzei entregatuko zaizkie, ikaslearen espedientean artxibatuko dituzte, eta ikaslearen banakako jarduera planean kontuan hartuko dira.

## COORDINACIÓN

La coordinación con el resto de profesionales implicados (asesorías de NEE, profesorado, terapeuta ocupacional, especialista de apoyo educativo, personal médico, ortopeda..), se realizará en función del plan de actuación del alumnado.

El informe sobre la valoración inicial del alumnado, el plan de trabajo y el informe con la valoración final se entregarán a las asesorías de NEE, que los archivarán en el expediente del alumno o alumna y se considerarán en su correspondiente plan de actuación personalizado.

HPB aholkularitzekin izan beharreko koordinazioa Berritzegunean egingo da, bakoitzak horretarako ezartzen dituen datetan.

La coordinación con las asesorías de NEE, se realizará en el Berritzegune, en las fechas que cada cual destine a ello.

Fisioterapiako pertsonal espezialistaren koordinazioa lurralde mailakoa eta lurralde artekoa izango da.

La coordinación del personal especialista en fisioterapia será territorial e interterritorial.

Lurralde koordinaziorako, fisioterapiako pertsonal espezialistak puntu hauek konkretatuko dituen proiektu bat egingo du: koordinatzailea, parte-hartzaileak, bileren egutegia (data, tokia eta ordutegia), lan-proposamena (helburuak, edukiak, jarduerak...) eta parte-hartzaile guztiek onartzea. Plan hori Hezkuntza Berriztatzeko lurralde arduradunari urriaren 31 baino lehenago aurkeztuko zaio, ikuskatu eta onar dezan.

Para la coordinación territorial, el personal especialista en fisioterapia elaborará un proyecto donde concretará: coordinador o coordinadora, participantes, calendario de reuniones (fecha, lugar y horario), propuesta de trabajo (objetivos, contenidos, actividades...) y la aceptación por todos y todas las participantes. Este plan se presentará, para su supervisión y aprobación, al o a la responsable territorial de Innovación Educativa, antes del 31 de octubre.

Koordinatzaileen lanak hauek izango dira:

- Koordinazio-plana aurkeztea: helburuak, edukiak, datak...
- Saio bakoitzaren akta egitea.
- Akta Hezkuntza Berriztatzeko lurralde arduradunari bidaltzea.
- Ikasturtearen bukaeran memoria aurkeztea (proposatutako helburuak zein mailatan lortu diren, aktak, balorazioa, egindako materialak...).

Serán tareas de los y las coordinadoras:

- Presentar el plan de coordinación: objetivos, contenidos, fechas...
- Elaborar el acta de cada sesión.
- Enviar el acta al o la responsable territorial de Innovación Educativa.
- Presentar, al finalizar el curso, la memoria (nivel de consecución de los objetivos propuestos, actas, valoración, materiales elaborados, etc).

Lurralde arteko koordinazio-bileretara lurralde koordinatzaileak joango dira eta beren gain hartuko dute landutako gaiak kideei helaraztearen ardura.

A las reuniones de coordinación interterritorial acudirán los coordinadores o las coordinadoras territoriales, comprometiéndose a trasladar a sus compañeros o compañeras los temas tratados.

Berritzegune Nagusiak ondorengo egun eta tokietan koordinatuko eta deituko ditu lurralde arteko koordinazio-bilerak:

El Berritzegune central coordinará y convocará las reuniones de coordinación interterritorial en las siguientes fechas y lugares:

| Data | Berritzegunea |
|---|---|
| Urriaren 16a | G03 Eibar |
| Urtarrilaren 15a | A01 Vitoria-Gasteiz |
| Apirilaren 16a | B02 Txurdinaga |
| Ekainaren 11a | G03 Eibar |

| Fecha | Berritzegune |
|---|---|
| 16 de octubre | G03 Eibar |
| 15 de enero | A01 Vitoria-Gasteiz |
| 16 de abril | B02 Txurdinaga |
| 11 de junio | G03 Eibar |

Koordinazioetarako behar diren joan-etorriek zerbitzu-arrazoiengatik indemnizazioak jasotzeko eskubidea emango dute.

Los desplazamientos requeridos para las coordinaciones darán derecho a indemnizaciones por razones de servicio.

## FAMILIEKIKO HARREMANA

Fisioterapiako pertsonal espezialistak, irakasle-taldearekin koordinazioan eta haien eskuduntzaren eremuan, hiru hilean behin emango die gurasoei edo ikasleen legezko ordezkariei informazioa eta lehen eta azken bilerak ikasturtearen hasiera eta bukaerarekin bat etorriko dira.

## RELACIÓN CON LAS FAMILIAS

El personal especialista en fisioterapia, en colaboración con el equipo docente, informará en el ámbito de su competencia, a las familias o a los y las representantes legales del alumnado con una periodicidad trimestral, haciendo coincidir la primera y la última reunión con el inicio y final del curso escolar.

## COVID EGOERA

COVID aurrean hartu beharreko neurriak ikastetxeko kontingentzia-planean jasotakoak eta Hezkuntza Saileko Laneko Osasun Arloak jakinarazitako jarraibideak izango dira.

## SITUACIÓN COVID

Las medidas a adoptar ante la COVID serán las que figuran en el plan de contingencia del centro y las instrucciones que haya comunicado el Área de Salud Laboral del departamento de Educación.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko azaroaren 17a
Vitoria-Gasteiz, 17 de noviembre de 2020

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Lucia Torrealday Berrueco
HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO ZUZENDARIA
DIRECTORA DE INNOVACIÓN EDUCATIVA

Blanca Mª Guerrero Ocejo
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA
DIRECTORA DE GESTIÓN DE PERSONAL